

EKOLOGIA SOZIALAREN NAZIOARTEKO II TOPAKETA



www.ecologia-social.net

ecologiasocialnet@gmail.com

2017ko urriaren 27tik 29ra Ekologia Sozialari buruzko II. Nazioarteko Topaketa ospatu zen Bilboko Karmela eskola okupatuan (Euskal Herria). Aukera ezinhobea izan zen Euskal Herriak bere identitatea defendatzeko gauzatu dituen borroka omentzeko, batez ere, autogestioan, herri eta nekazari tradizioan oinarrituta Euskal Herrian garatu diren autonomia moduak.

Floréal Romerok, espainiar Estatuan bizi den nekazari, idazle eta Ekologia Sozialaren arloko aktibistak ireki zituen topaketak, eta ardatz nagusiak azaldu zituen: askotariko kritika politiko eta sozialentzako eztabaidaguneak irekitzea, tokian tokiko borroka eta antolakuntza politikorako modu alternatiboak bistaratzea eta korrante guzti horien arteko loturak ekologia sozialaren eta udalgintza libertarioaren proposamen politikoaren esparru teorikoaren barruan kokatzea. Nola borrokatu? Nola antolatu edo berrantolatu? Nolako ikasbideak atera ditzakegu Chiapaseko eta Rojavako ekimenetatik, besteak beste? Nola defini ditzakegu gizakia eta gainontzeko izaki bizidunak, asebetetzeko moduan, modernotasun kapitalistak ematen dien "baliabide" izaera baztertuta?

Jarraian, Debbie Bookchin idazle eta kazetari estatubatuarren txanda heldu zen. Murray Bookchin filosofoaren alaba da Debbie. Ekologia Sozialaren kontzeptua eta bere proposamen politikoa, hau da, "komunalismo" delakoa sortu zituen filosofo libertarioak, eta, hori dela-eta, Ekologia Sozialaren nondik norakoak azaldu zituen Debbiek. Pentsamendu komunista eta anarkista sintetizatzen dituen mugimendu filosofiko eta politikoa da; kapitalaren kritika hartu zuen komunismotik eta boterearen hierarkien kritika, anarkismotik. Analisi horretatik abiatuta, kapital-Estatu-nazio-patriarkatu laukoteaz bestelako alternatiba bat zertzelatu zuen, komunen komunitatean antolatutako gizartea, alegia, asanblada bidezko erabakimena duena, tokian tokiko demokrazia partehartzailea eta zuzena, behetik gorakoa.

Debbie Bookchinen arabera, bestelako harreman bat sortu behar dugu

naturarekin. Hau da, ezinbestekoa da hainbat kontzeptu oker haustea: izaki bizi ororengan naturak dena baldintzatzen duela, natura erasokorra dela eta lehiakortasunezko unibertsoa dela... Haatik, aztertu behar dugu instituzio demokratiko eta ekologikoak sortzeak nolako potentziala duen gizakiak naturan modu positiboan integratzeko. Izan ere, irauteko joerarik handienak dituzten jendarte naturalek sinbiosia eta autoerregulazioa gauzatzen dute. Naturarekiko harreman hori antolakuntza sozial batera eramanez gero, giza talde txiki autoantolatuen multzo bat eratzen da.

Hurrengo egunetako saioak bi kategoriatan bereizi ditzakegu: aplikazio praktikoak, batetik, eta proposamen teorikoak, bestetik.

Ekintza zehatzen arloan, Alemaniako Hambacheko basoko emakume ekintzaileak izan genituen gure artean. Koloniako hiriaren neurriko 30 urteko ikatz meategi bati zerbitzua ematen dion trenbidearen ondoko lursail bat okupatzen ari dira. Ekintzaileak sarritan, trenbidera kateatzen dira, sabotatzeko. Basoaren okupazioa zuhaitzen adarretan eraiki dituzten etxeetan gauzatzen dute. Etxeak are 25 metroko altueran ere kokatuta daude. Tosuko ekintzaileek euren okupazioaren berri eman zuten. Okupatuta dagoen lursaila aparkaleku bilakatzeko proiektua du Udalak. Okupatu zenez geroztik, hiri lorategia da. Auzolan eta Batzarre bidez antolatzen dira. Auzolana komunitate-lana da, gehienetan eraikuntza-, komunikazio- eta konponketa-lanetarako. Batzarrea asanblada logistikoa da, auzokideak edota tokiko eragileak batzen dituena.

Euskal Herriko Chiapasekin elkartasun plataformak komunismo libertarioaren alde egiten dituen ekintzen berri eman zigun. Izan ere, Chiapasen zapatistek defendatzen dituzten ideiek eta Euskal Herriko egoerak badituzte antzeko alderdi batzuk. Ekintzaile zapatista batek Chiapaseko borroken ibilbide historikoa azaldu zuen. Hogeita hamar urte ez dira nahikoak izan botere-harreman guztiak aldatzeko, baina urrats handiak eman dira, bereziki

emakumeen ahalduntzeari dagokionez. Komunitate indigenen kulturak bizirik dirauenez, errazagoa izan da eredu kapitalista haustea, are osasuna eta hezkuntza bezalako arlo kritikoetan ere.

Azkenik, Irango Kurdistaneko (Rojhalat) ekintzaile batek jendarte demokratiko eta feminista ezartzeko ahaleginen berri eman zigun, talde etnikoekin errepresioa erabiltzen duen Estatu patriarkal erlijioso baten mende egonik. Borrokarako asanblada bat ere ez da publikoa: borroka ezkutuan egiten da, Turkiakoa baino biolentoagoa den erregimen batean. Urtean, 1000 preso politiko baino gehiago hiltzen ditu erregimenak, horietako batzuk plaza publikoetan. Saioan, nazioarteko komunikabideen isiltasuna salatu zuen.

Saioetan ekarpen teoriko ugari egin ziren. Hasteko, Iraun Permakulturako kide batek jendarte permakulturaren kontzeptua aurkeztu zuen. Nekazaritza multikultural eta iraunkorrei buruzko gogoeta hirietaraino darama: nola antolatu giza habitata egonkorragoa izan dadin eta bioaniztasuna susta dezan? Hainbat kontzeptu eztabaidatu ziren, hala nola bioeskualdeak. Barne-kohesioa duten espazioak dira (hiriak, eskualdeak edo herrialde multzoak, kasu), eta horien adibide izan daitezke Euskal Herria, Iberiar Penintsula eta irlak, oro har, edo ekonomia sozial eta solidarioa. Nekazaritzaren ikuspuntutik esan ohi da zoruek 10 urte behar izaten dituztela berroneratzeko, baina, zer gertatzen da gizakien jendarteekin? Orintxe hasi beharko ginateke, oraindik eraiki gabe dagoen proiektu politiko batekin. Udalgintza libertarioa izan liteke proiektu hori, teoria horiek Kropotkinek definitutako elkarrenganako laguntzan oinarrituta daude eta.

Ekintza Antiespezistak antiespezismoari buruzko aurkezpen zabal bat egin zuen. Espezismoa norbanakoen diskriminazio morala da, beste espezie batekoak izate hutsagatik. Dominazio mota hau beste dominazio ardatzekin bat dator, eta dominazio guztien irakurketa bateratuari zeharkakotasuna deritzogu. Ikuspuntu honetatik, antiespezismoa ez da lehentasunezko borroka; borroka sozial guztiak bateratuta daude, zapalkuntzatik erabat askatzearen alde.

Ekologia Sozialarekin erabateko koherentzia du: antiespezisten kritikak eta kritika ekologiko eta sozialek bat egiten dute borroka antikapitalista eta antiautoritarioarekin. Zapalkuntza iturri horiek modu zabalagoan deskribatu zituen filosofiako doktore eta ekofeminista den Laura Benítez Valerok. Zapalkuntzak izan zituen hizpide, bai eta zapalkuntzok noraino ditugun barneratuta ere: nor bere buruaren gaineko zapalkuntza eta besteren gorputzen gaineko zapalkuntza, Descartesek gorputza eta gogo bereizi zituenetik hona. Antiespezismoak ez du agenda politikorik, beraz, udalgintza libertarioa proposamen politiko egokia izan daiteke praktika antiespezistan barneratuko den jendarte batentzat.

Kataluniako independentzia aldarrikatu eta hurrengo egunean, Estatu-nazioei buruzko mahainguruak abagunea eman zigun Kataluniari buruz eztabaidatzeko. Horretarako, Laia Vidal izan genuen gure artean, Grup de Reflexión per a l'Autonomia izeneko taldeko kidea. Taldeak Kataluniako eta Euskal Herriko kasuak aztertzen ditu, nagusiki, eta hainbat eskualde iraultzailearen independentzia proposamenen balantzea egiten du. Mintza gaitezen, adibidez, Kataluniako Erreferendumean egin zen galderaren erantzunez, hau da, Bai-Ez dikotomiaz. Independentziaren alde egon bai, baina Estaturik nahi ez zutenek ez zuten izan modurik haien iritzia adierazteko. Orduan, ikusteke dago nolako independentzia defendatu behar den, eta haien aukera komunismo libertario modu bat aplikatzea da (udalgintza libertarioa horrelako formula bat da), hierarkiak hauste aldera. Hain zuzen ere, Katalunia iraultzailearen oihartzuna dakar aukera horrek. Hau da proposatu den bide-orria: 1) herri-antolakuntza indartzea; 2) independentzia sinbolikotik egiazko independentziara pasatzea; 3) ezartzen ari diren alternatibetan aktiboki parte hartzea.

Jakue Pascual soziologoak Estatu-nazioaren kritika sakona egin zuen, eta kapitalismoaren kategoria gisa aurkeztu. Izan ere, Estatu-nazioak

kapitalarentzako eta bere klase zapaltzailearentzako funtzioak betetzen dituzten eraikuntzak dira. Asanblada Estatu-nazioaren aurkako egitura da, subjektuaren erradikaltasunean oinarritzen dena, eta ideologia kapitalistatik kanpo kokatzen den ideal baterako bidea irekitzen du. Gogoeta horrek Kurdistango konfederalismo demokratikoa ezartzeko bidea urratu zuen, adibidez. Bertan jendarte feminista erradikala eraikitzen ari da, ekologia sozialean inspiratua, bai eta, epe luzerako lan handia eginez, kapitalismoaz bestelako mentalitatea eta moralizazioa hedatzen. Izatez, ezin dugu gauetik egunera jendartea aldatu, baina bai bestelako noranzko batean, koherentziaren eta etikaren bidean doazen erakundeak eraiki, balio teknologiko hutsala alde batera utzita.

Hain zuzen ere, kapitalismoaren eraikuntzan alderdi teknologikoak duen garrantziaz aritu zen Martino Seniga kazetaria eta Bookchinen itzultzailea italierara. Hau izan zen bere ponentziaren izenburua: "Kapitalismoaren eginkizun psikologikoa lotura komunitario eta komunikatiboen alienazioan eta suntsiketan". Kapitalismoak, zabaltzen hasi zenean, haustura antropologikoa ekarri zuen, eta egoera aldatu egin zuen, giza komunitateak osatzen zituzten afektuzko harreman estuei zegokienez. Sexualitatea modu utilitarioan erabiltzera bideratu zen, hau da, subjektu gehienbat maskulinoaren ugalketara, ekoizpen kapitalistaren iturria, langile berriak, alegia, ekartzera. Berariaz emozionala izan zen haustura haren ondotik, beste batzuk etorri ziren gutxinaka-gutxinaka, kapitalismoaren bilakaeran barrena. Azkenik, pertsonen arteko loturak hautsi egin ziren, eta enpatia lausotu. Horrek bideak ireki zizkien narzisismo orokortuari eta hutsune existentzialari. Kontsumoak ezin du hutsune hori bete, baina bai askotariko tentazio autosuntsitzaile eta nihilistek: feminizidioek, muturreko eugenismoek, Columbine sindromeak, yihadismoek eta abarrek.

Beste kritika esanguratsu bat sindikalismoarena izan zen, anarkosindikalismoarena, zehazki, CGTk eta ENTk ordezkaturia. Lana gizakien emantzipaziorako bidetzat hartu bada ere, lana kapitalaren kategoria bat izan da,

eta sindikatuak eurak lanaren kategoria bilakatu dira, bilakaera historikoak berresten duen bezala. Hala ere, esperientzia batzuek erakusten digute sindikatu batek hobekuntza esanguratsuak eta autogestiozko praktikak ekar ditzakeela guztion bizitzetan, enpresen esparrutik eta Estatuak zehaztutako esparru juridikotik kanpo: auzoetako sindikatuen eta Bartzelonako emakumeen sindikatuen kasua da. Hortxe ikus daiteke nolakoa den asanbladaren eraginkortasuna eta kapitalismoari irteera konkretua ematen hasteko tresnak zeintzuk diren, zehazki.

Azken gaia, Jineologia, Necibe Qaradaxik aurkeztu zuen. Jineologia (Jin = emakumea eta logía = zientzia). Paradigma epistemologiko berria da, giza jendartearen azterketa historiko eta soziologikoa burutzea helburu duena. Hainbat proposamen teoriko egin ditu gizonen dominazioaren eta hori lortzeko metodoen (emakumeen kontrola, emakumeen eta haien gorputzen gaineko dominazioa, haien identitatea suntsitzea) kritikan sakontze aldera. Era berean, erradikalki feminista denez gero, lan akademiko humanistagoa ahalbidetu du. Hain zuzen ere, mundu akademikoaren egungo funtsak sexistak dira, edo, hain dira sexistak, ia berreskuraezinak dira. Jineologiak gizartearen sektore kritiko guztietan emakumeen instituzio autonomoak ezarri ditu. Horri "banaketaren teoria" deitzen zaio, eta Rojavako gerraren milizietan ezarri da. Jineologiaren Institutuaren eskolak mundu osoan barreiatzen ari dira.

Mentalitate kapitalista modernoarekin kontrastatuta, mentalitate demokratiko modernoa eskaintzen du Jineologiak. Mentalitate hau gertuago dago gaur egun ezagutzen dugun identitate femeninotik. Izan ere, gizarte kapitalistak gizonei mentalitate kapitalista, patriarkal eta autoritarioa eman die, eta, polarizazioz, mentalitate berdinzaleago bat eman die emakumeei, baina ahultzat eta mendekotzat hartuta. Hala ere, bietako batek ere ez du identitate bat ala bestea biologikoki berezkotzat. Jineologiaren jarraitzaileek "arra akabatu behar dugu" diote, bai gizonen barnean, bai emakumeen baitan ere, gu guztion

emantzipazioa ahalbidetzeko (Espainiako Estatuan, Emakume Askeek esaten zuten bezala). Zera proposatzen da: alboratuta eta mespretxatuta geratu diren balioak, hala nola elkartasuna edo elkarrenganako laguntza, aldezteak eta emakumearen irudia indartzea, esentzialismo biologikoan erori gabe. Emakumeak gertuago daude mentalitate demokratiko modernotik, baina gizonek ere eskura dezakete, Abdullah Öcalan lider kurduak bezala.

Azkenik, topaketan amaieran egin ziren balorazioak eta autokritikak aipatuko ditugu: gai gehiegi landu ziren oso denbora laburrean, eta, hori dela-eta, saioei ezin izan zitzaizkien "tailer" formatua eman, eta azkenean "konferentzia-eztabaida" formatua hartu zuten. Itzultzaileen lana oso nabarmena izan zen, baina oso gutxi izan ziren, norik bere hizkuntzan adieraztea bermatu ahal izateko (euskaraz, adibidez). Era berean, ez zen nahikoa denbora egon hitzaldi guztiak ekologia sozialaren esparruan kokatu ahal izateko. Azkenik, parte-hartzaile guztiak zoriondu nahi ditugu, bileren giroa eztabaidarako oso egokia izan zelako eta ez zelako inolako arazorik egon.

Topaketoari esker, kontaktuak erraztuko dira, eta, hartara, Estatu nahiz eskualde mailako hausnarketa taldeak osatu ahal izango dira, eta datorren urtean hainbat ekitaldi garatu, balizko hirugarren edizioa abiarazten den bitartean.